

JUANA ETA MARTIÑ



I

Grazi aundiko belcheran polit
 zoragarritzko laztana,
 ortz errenkara churiyak beti
 erakutsitzen dauzkana,
 mirabe ondo itzegiñetan
 goñuagorik ezdana,
 baña begiyak jarri zituen
 ezkeru Martincho gana,
 ezdauka lengo edertasunik,
 galduba dago diena.

Martiñ, chit mutill panparroya zan
 pachandiz jantziya ¡koncho!
 gazte egoki jostalariya
 apaintzen zana ondocho:
 baña galaya goiz bat ezkeru
 ezdabill len bezin goño;
 ikusi zuben ezkeroztikan
 begi beltz eder Juanacho,
 gizarajuak ezdaki nola
 berekiñ egiñ panpancho.

Belcheran eder zorragarriya
 eche oneko dama zan,
 mutilla berriz fortuna charrez
 bizitzen zana pobrezan;
 biyen arteko diferentziya
 nola ain chikiya etzan,
 maite zubela esan nai ziyon
 betiko sinistra zezan,

baña mendian lotsak artuta
 ¡ai! etzekiyen zer esan!

Bere guraso biyotz gabiak
 ikusi arren urtutzen,
 ezdiyote nai diru zaliak
 damari utzi ezkontzen;
 nayago dute bertan ikusi
 kupirik gabe erotzen;
 nayago dute bertan illotzik
 asnasa gabe erortzen,
 ez laja mutill ezer ezduen
 beartsuakiñ batutzen.

—Animatikan esaten dizut
 ni bizi naizen artian,
 nere Martincho maiteko zaitut
 biyotza bete betian—
 Mutillak gozoz erantzun diyo
 —Biyok alkartu gaitian
 Amerikara nua segiran
 fortuna baten bidian.....
 eta ara zer esan zituzten
 gero echekeo atian.

—¿Nai aldirazu?
 —¡Biyotzetikan!
 ¡laztana ez naiz aztuko!
 —¿Bene benetan?
 —¡Naitasun fiñ au
 etzait sekula oztuko!
 —¡Nere Martincho!
 —¡Nere ametsa!
 ezta sortu ta sortuko,
 juramentuba eskeintzen dizut
 ni zuzaz aztu orduko,
 nere biyotza penaren kargak
 lenago luke urtuko.

II

Ainbesteraño maite izan da
 bi urte pasa baño len,
 piška piškaka naitasun ayek
 ederki aztubak zeuden:
 naiz benetako juramentubak
 biyotzetik irten arren,
 galai egoki gazte batekiñ
 biyak egiñik alkarren,
 choko chokuan Martiñ lajata
 ĩaka ezkondu ziraden.

Martiñ tristia fortuna billa
 Amerikara joana zan,
 alare bere etorkizuna
 etzan uskeri bat izan;
 Juana ezkondu zan egunian
 ialso gezurtiyen ĩisan,
 Martiñengatik zer esanikan
 iñork iduki ez zezan,...
 beste panpoša batekiñ ĩaka
 ezkondu ziran elizan.

Juanak, Martiñen gantikan diyo
 ayek zirala itz onak,
 Martiñek berriz kulpa zuela
 arri entzuten ziyonak;
 baña gezurrak nola diraden
 bat eta beste diyonak,
 orrenchengatik mundurik mundu
 daude zabalduak sonak,
 charren charrenak dirala beti
 andriak eta ĩizonak.

VICTORIANO İRAOLA.

